



ARBELERA KORRIKA

Materiala: arbelak edo DIN A3 neurriko orriak edo kartulinak, talde bakoitzeko bat.

Jokatzeko era:

Talde bakoitzak traineru bat osatuko du, zutik edo eserita, arbelari bizkar emanaz. Arbela zatitan banatuko da, zenbat talde hainbat zati. Irakasleak abiatzeko agindua ematen duenean, ilara bakoitzeko lehen ikasleak arbelera abiatuko dira han hitz bat idaztera, ondoren itzuli eta hurrengoari lepoa ukitu edo klariona pasako dio (lekuko gisa). Hurrena altxatu, arbelera joan eta hango hitzari beste bat erantsiko dio; taldeko guztien artean zentzuzko esaldi bat osatzeko. Esaldi zentzuduna osatzen duten hitzak besterik ez dira puntuatuko, hitz bat puntu bat.

Irakasleak, hasteko, arbel bakoitzean lehenengo hitza jar dezake, adib: Atzo (iragana lantzeko), agian (hipotetikoak)...

